

Soraluzeko Udaleko Gobernu taldeak (EAJ/PNV – PSE-EE) Soraluzeko EHBILDUK argitaratu duen oharren harira zenbait argibide ematea nahi ditu.

- Lehenik eta behin adieraztea nahi dugu EHBilduk momento oro izan duela gertatutakoaren informazio zuzena. Bai larunbatean, Alkateak OSI Debebarreneko gerentearekin izandako elkarrizketaren ondoren baita astelehenean, Gobernu Batzordeko bileran, Eibarko ospitalean eguerdiko 14:00etan izan zen bileran esandakoaren berri ere.
- Printzipioz hiru izan dira Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak gomendioak ezarritako udalerrak, Zaldibar Eibar eta Ermua konkretuki . Soraluze ez da inoiz aipatu.
- ***Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseiluko ikerlaria den Begoña Jimenezen hitzetan “Ez du beharrezko ikusten airearen kutsaduraren azterketa eremu gehiagotara zabaltzea. Lasaitasun mezua luzatzen duelarik” DV 2010-02-19***
- EHBILDUK argitaratutako idatzian ondorengoa esaten da ***“beste erakunde batzuek (ENEK, esaterako) “segurtasun eremua 20 kilometrokoa izan beharko litzatekeela adierazi” baitute, esanez “***
- Gaur bertan ENEK-rekin (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren kontseilua) ipini da alkatea harremanetan eta ez dute adierazpenik egitea nahi izan gai honi buruz. Bestalde argi azaltzea nahi dugu hartu beharreko neurri, gomendio eta debekuak esartzeko eskumena duena Depatamendua Eusko Jaurlaritzako Osasun saila dela eta ez ENEK.
- Kontsumitu daitezkeen elikagaiei dagokionean. Zaldibarko lurretan ekoiztutako barazkiak **"arazorik barik"** kontsumitu daitezkeela adierazi zuen **Jaurlaritzaren Erika fundazioak** (Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen fundazioa da euskadiko elikagai segurtasuna hobetzea du helburu.) .Ondorioz Soraluzen ekoizten direnak ere.

Guzti hau horrela, Udal gobernu bezala pentsatzen dugu, iturri ofizialak erabili behar direla oinarri bezala adierazpenak egiterako orduan. Egiatzko eta kontrastatutako informazioa eman ez herritarrei.

Informazio gehiago: <https://www.ihobe.eus/vigilancia-ambiental>

